

Lonja aisialdi-gune gisa finkatzen da Euskadin: 62.000 gaztek lokaletan pasatzen dute astialdia, lagunekin

Gazteen Euskal Behatokiaren argitalpen berriaren arabera: 'Gazteen lonjak eta lokalak EAEn'.

Euskadiko Gazteen Joerak bildumaren zazpigarren aleak **Gazteen lonjak eta lokalak EAEn** ikerketa jasotzen du, Gazteen Euskal Behatokiko lantaldeak gauzatua.

Txosteneko datuek aditzera ematen dutenez, behintzat, gure artean luzaroan geratuko da fenomeno hau, eta, hain zuzen ere, errealitate hori ezagutzen lagundu nahi du Gazteen Euskal Behatokiak ikerketa honen bitartez.

Argitalpenak azpimarratzen duenez, astialdia lonja batean lagunekin pasatzea erantzukizun- eta autonomia-ariketa da. Erantzukizun-ariketa da, lagunek konpromisoa hartzen dutelako auzokideei zaratarik edo enbarazurik ez eragiteko; autonomia-ariketa da, espazio bera beste pertsona batzuekin konpartitzeak bizikidetzara-arauak ezartzea eta, taldearen onurarako, zereginak betetzea dakarrelako.

Aisia lagunekin konpartitzeko premia zaharrarekin zerikusi handia du lonjen fenomenoak, bai eta berriago edo zaharrago, jatorrizko familiarekin bizi diren bitartean, "sasiemantzipazio" moduak bilatzeko premiarekin ere.

Ikerketa honek islatzen duen bezala, lonjak ez dira komunitate-dinamikaren fenomeno isolatuak. Izatez, erreferentziazko egiturak izan daitezke erakundeek nahiz gizarte-ekimenak lokal horietan biltzen diren gazteekin kontaktatzeko. Batzuk ez dira komunitateari irekita egongo, baina agerikoak dira eta, gauza jakin batzuetarako, baita irisgarriak ere.

Hona ikerketan aurki daitezkeen datu batzuk:

- ✓ Lonjen fenomenoak oso zabaldua dago EAEn: gazteen % 20k lonja daukate gaur egun. Gainera, % 27k eduki nahiko lukete.
- ✓ Lonjara joatearen arrazoia nor bere espazioa eduki nahi izatea da, helduen kontrolatik kanpo eta aterpean. Lagunekin egoteko leku bat, alegia.
- ✓ Lonja dutenen artean, gehiago dira mutilak, neskak baino. Gehienak ikasleak dira, gurasoen etxeetan bizi dira, eta 21 urte dituzte, batez beste.
- ✓ Lonjak, gehienetan, mistoak diren arren, deigarria da % 23 mutilenak bakarrik izatea.
- ✓ Oro har, 15 kidetik gorakoak izaten dira, eta lonjen ia erdietan koadrila bat baino gehiago elkartzen da, gastuak merkatze aldera.
- ✓ Funtsean, asteburuetan joaten dira lonjara, eta hori da koadrilaren topagunea, koadrilaren erreferentziazko lekua.
- ✓ Kontsentsuz adostutako arauak darabiltzate, eta, lokala mantentzeki edo auzokideekiko bizikidetzari dagokionez, ardura euren gain hartzen dute.
- ✓ Hamarretik hiruk diote arazoren bat izan dutela auzokideekin. Hori izan daiteke lokalen mugikortasun-maila handiaren arrazoi bat.

- ✓ Udalek gai honetan bete behar duten egitekoari dagokionez, bizikidetzarazoak daudenean udalek bitartekari-lanak egitearen alde daude gazte gehienak.

2012ko azaroaren 23tik abenduaren 4ra 15 eta 29 urte bitarteko gazteei telefonoz egindako inkesta batean oinarrituta dago ikerketa hau. Argitalpenean, emaitzarik azpimarragarrienez gain, erabilitako galde-sorta eskaintzen da, bai eta datu guztiak bost aldagaien arabera xehekatuta kontsultatzeko aukera ere: norbera bizi den lurralde historikoa, sexua, adin-taldeak, udalerriaren tamaina eta lonjetan esperientziarik izatea ala ez.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

